Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Bizkaia foru aldundia diputación foral

MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO ENTITATEAREN ALDE BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2022. URTEKO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO ABENDUAREN 30EKO 8/2021 FORU ARAUAN JASOTAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO HITZARMENA. HELBURUA: «LANDUE - ENPRESA TXIKIETAN EUSKARA SUSTATZEKO EGITASMOA» PROIEKTUA PARTEZ FINANTZATZEA 2022KO EKITALDIAN.

Bilbon, 2022ko ren (e)(a)n

BILDU DIRA

Alde batetik, Lorea BILBAO IBARRA txit andrea, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den heinean.

Bestetik, Mireia ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA andrea, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen izenean eta haren ordez, erakunde horren presidente legez.

JARDUTEN DUTENAK

Lehenengoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu legez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Erakundeen Hautespen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko eta berari dagozkion ahalmenen arabera, eta 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren Egitura Organikoaren Araudiak ezartzen duena garatzeko dagozkion eskumenen arabera.

CONVENIO POR EL QUE SE REGULA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PREVISTA EN LA NORMA FORAL 8/2021, DE 30 DE DICIEMBRE, DE PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL AÑO 2022, A FAVOR DE LA MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO, PARA LA FINANCIACIÓN PARCIAL DEL PROYECTO «LANDUE - ENPRESA TXIKIETAN EUSKARA SUSTATZEKO EGITASMOA» DURANTE EL AÑO 2022.

En Bilbao, a de de 2022

REUNIDOS

De una parte, la Ilma. Sra. Dña. Lorea BILBAO IBARRA, en su calidad de Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA.

De otra, Mireia ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA, en nombre y representación de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO, en calidad de presidenta de la misma.

INTERVIENEN

La primera, en calidad de diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre.

Bigarrena, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen presidente legez, Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluaren eta erakunde horren Estatutuen 18. artikuluaren arabera.

La segunda, en calidad de presidenta de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO, a tenor de lo dispuesto en artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y artículo 18 de los Estatutos de la entidad.

Alderdi biek, euren karguei dagozkien eginkizunen jardunean, elkarri aitortzen diote hitzarmen hau emateko gaitasun osoa eta, horretarako, honako hau

Ambas partes, en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para otorgar el presente convenio y al efecto,

AZALTZEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Sailaren eskumenen artean, besteak beste, euskararen sustapena eta Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen alde jarduten duten elkarteei laguntza ematea agertzen dira.

PRIMERO.- Que entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran, entre otras, la promoción del euskera así como el apoyo a las asociaciones que trabajan a favor del euskara en el Territorio Histórico de Bizkaia.

BIGARRENA.- MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateak, bestalde, bere udalerrietako gizarte-bizitzaren eremu guztietan euskararen erabilera ahalbidetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzen ditu, bertako biztanleen hizkuntza-eskubideak bermatu daitezen.

Entitateak adierazten du ez dagoela foru-dirulaguntzen onuraduna izatea ezinezkoa egiten duen ezein egoeratan, 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluak xedatzen duenaren arabera, eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 42. artikuluaren arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

SEGUNDO.- La MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO tiene entre sus objetivos la prestación de servicios necesarios para posibilitar el uso del euskara en todos los ámbitos de la vida social de sus correspondientes municipios y así garantizar los derechos lingüísticos de sus habitantes.

La entidad manifiesta no encontrarse incursa en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

HIRUGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen diru-laguntzen erregelamendua

TERCERO.- Que conforme a lo dispuesto en el artículo 26 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia

onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, hitzarmenak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 2021eko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauak MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen aldeko 17.000,00 euroko dirulaguntza izenduna aurreikusi du (43299, 335106, 0406 aurrekontu partidaren kontura, 2021/0053 proiektua), 2022ko ekitaldian zehar partez finantzatzeko «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» proiektua. Proiektu honen helburu nagusia Durangaldeko lan-munduan euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako, herritarrei euskarazko zerbitzua bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu enpresen esku. Kasu honetan, hau da 2022. urterako helburua: egitasmoa trinkotzea eta enpresa berriak LANDUEra erakartzea; egun hitzarmen-kide diren enpresei zerbitzua emango zaie, eta lau enpresa handi eta hamar enpresa txiki erakarriko dira egitasmora. Proiektuak, 2022rako, 21.448,00 euroko aurrekontu bat izango du, guztira.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, haren edukia kontuan hartuta. Izan ere, lege horren 6.1 artikuluak xedatzen duenez, lege horren aplikazio-eremutik kanpo daude lege horretan edo administrazio-arau berezietan arautzen diren kontratuetan jasotzen ez diren hitzarmenak, honako hauen artean sinatzen direnak: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzako kudeaketa-erakunde eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, autonomia erkidegoak, Ceuta eta Melilla hiriak, toki-erakundeak, haien menpekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak. Dena dela, nortasun

34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, los convenios serán el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

En este sentido, la Norma Foral 8/2021, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022, con cargo a la partida presupuestaria 43299, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2021/0053, ha previsto una subvención nominativa de 17.000,00 euros a favor de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO para la financiación parcial del proyecto denominado «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» durante el ejercicio 2022. El principal objetivo de este proyecto es fomentar el uso del euskera en el mundo laboral de la zona del Duranguesado. Para ello, proporcionará a las empresas los medios necesarios para garantizar el servicio en euskera a la ciudadanía. En este caso, en el año 2022 el objetivo del proyecto consistirá en la intensificación y captación de nuevas empresas a LANDUE, dar servicio a las empresas actualmente conveniadas y atraer a cuatro grandes empresas y diez pequeñas empresas al proyecto. Dicho proyecto, durante 2022, se ha presupuestado en un total de 21.448,00 euros.

El presente convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.1, quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en

juridiko pribatua duten erakundeek botere adjudikatzailea izan behar dute.

este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, hitzarmen honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este convenio incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Ildo horretatik, haren tramitazioan "generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena" erantsi da, 141/2013 Foru Dekretuaren 2. artikuluak aipatzen duena.

En este sentido, en su tramitación se incorpora el «informe de evaluación previa del impacto en función del género» al que hace referencia el artículo 2 del Decreto Foral 141/2013.

LAUGARRENA.- Lehen adierazitako helburuarekin, alderdiek hitzarmen hau itundu dute, zeinaren bidez 2022. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna arautzen den MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen alde, honako estipulazio hauekin bat:

CUARTO.- Que con la finalidad expuesta anteriormente, las partes han consensuado el presente convenio, por el que se regula la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 8/2021, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022 a favor de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO, a tenor de las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022. urteko aurrekontu orokorrei buruzko 2021eko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauan jasotako 17.000 (hamazazpi mila) euroko zenbateko jakineko dirulaguntza izenduna arautzea MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen alde (IFZ P4800001B) «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» proiektua partez finantzatzeko 2022ko ekitaldian.

Primera.- Objeto del Convenio.

Es objeto del presente convenio la regulación de la subvención nominativa por importe cierto de 17.000 € (diecisiete mil euros) prevista en la Norma Foral 8/2021, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022 a favor de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO (NIF P4800001B) para la financiación parcial del proyecto «LANDUE - Empresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» durante el ejercicio 2022.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikuluaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Dirulaguntzen Erregelamenduko 50.3.c) artikuluaren ondorioetarako, foru-dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira onuradunak hitzarmen honen xedea garatu eta burutzeko edozein Administrazio edo erakundetatik jasotzen duen beste edozeinekin.

Hitzarmen honi dagokionez, dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede den jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat etorri, behar-beharrezkoak izan eta ezarritako epean egiten diren gastuak. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Tributuak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, eskatzen den finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

<u>Bigarrena</u>.- Finantzaketa.

Bizkaiko Foru Aldundiak MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateari (IFZ P4800001B) HAMAZAZPI MILA EUROKO (17.000,00 €) dirulaguntza ordaintzeko konpromisoa hartzen du. Zenbateko hori partida honen kontura ordainduko da: 43299 aurrekontuko partida, 335106 programa, 0406 organikoa, 2021/0053 proiektua. Xedea erakundeak 2022ko ekitaldian «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» proiektua partez finantzatzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoko

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y del artículo 50.3.c) del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la presente subvenciones forales serán compatibles con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente convenio.

A los efectos del presente Convenio se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la persona beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

El importe de las subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, supere el coste de la actividad subvencionada.

<u>Segunda</u>.- Financiación.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a abonar un total de DIECISIETE MIL EUROS (17.000,00 €) a la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO (NIF P4800001B), con cargo a la partida presupuestaria 43299, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2021/0053, para la financiación parcial del proyecto «LANDUE - Enpresa txikietan euskara sustatzeko egitasmoa» durante el ejercicio 2022, en virtud de la subvención nominativa consignada en la Norma Foral 8/2021,

2022. urteko aurrekontu orokorrei buruzko 2021eko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna dela bide.

de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren aurrean. Horretarako ez da beharrezkoa izango entitate onuradunaren inolako bermerik, ez baita ikusten hitzarmen honen bitartez bereganatutako konpromisoak ez betetzeko arriskurik. Ordainketa bakarrean ordainduko da, hitzarmen hau sinatzen den unean.

La subvención será tramitada para su abono, en un único pago, por parte del Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte ante el Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la entidad beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas en virtud de este convenio. Se abonará en un solo pago a la firma del presente convenio.

Edozelan ere, foru-dirulaguntza honen obligazioa onartueta ordainketa onartu aurretik, egiaztatuko da MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta ez dela inoren zordun dirua itzultzeko ebazpen baten ondorioz.

En todo caso, previo al reconocimiento de la obligación y al abono de esta subvención foral se comprobará que la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Egiaztapena egin eta ikusten bada entitate horrek ez duela betetzen goian ezarritakoa, hamar (10) eguneko epean egoera hori konpon dezala eskatuko zaio, eta halaber jakinaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, foru-dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela, Administrazioak horren gaineko ebazpena eman ondoren.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que tal entidad incumple lo establecido anteriormente, esta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con indicación de que, en caso contrario, pierde el derecho a la subvención foral, previa la correspondiente resolución administrativa.

<u>Hirugarrena.</u>- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Dirulaguntza jaso duen proiektua egitea.

b) 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen Araudiko 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, erakunde onuradunak justifikazio-kontua aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa; justifikazio-kontu hori 2023ko martxoaren 31ra arte (egun hori barne) aurkeztu beharko du

<u>Tercera.</u>- Justificación de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención concedida se compromete a:

a) Realizar el proyecto subvencionado.

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación de los proyectos realizados por parte de la entidad beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta 31 de marzo de 2023 (incluido), en las oficinas del Servicio de Euskera (sitas en

Euskara Zerbitzuko bulegoetan (Bilboko Recalde zumarkalea, 30 5. solairua). Informazio hau jaso beharko du kontu horrek:

1.- Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

2.- Eginiko jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:

a) Eginiko jarduerei egotzitako gastu eta sarreren egoera-orria. Gastu eta sarreren egoera-orriak 1. inprimakiko egitura izan beharko du.

b) Aurreko a) letran adierazitako gastuen egoera-orriko kontzeptu bakoitzeko, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat egingo da, hartzekoduna, agiri-zenbakia, zenbatekoa eta igorpen- zein ordainketa-eguna jasotzen dituena; 2.a), 2.b), 2.c) eta 2.d) inprimakietako egituraren arabera egingo da zerrenda hori. Justifikazioa egiteko epea amaitzen den egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Sarreren egoera-orriko partida bakoitzeko, aurreko a) letran adierazitako diru-sarreren zerrenda sailkatu bat egingo da (dirulaguntzena eta bestelako sarrerena), zenbatekoa eta jatorria adierazten dituena; 3.a) eta 3.b) inprimakietako egituraren arabera egingo da zerrenda hori.

d) Entitate eskatzailean behar bezalako ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak c) letran berariaz adierazitakoak dira.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren b) letran adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

f) Onuradunak egiaztagiriak aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontratazioko araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira (Diru-laguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko 29.3 artikulua), salbu eta kontratuaren ezaugarri

Bilbao, c/. Alameda Recalde, 30 5º) de una cuenta justificativa por cada proyecto, cada una de las cuales deberá contener la información que se indica a continuación:

1.- Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2.- Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la estructura del formulario 1.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura de los formularios 2.a), 2.b), 2.c) y 2.d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin de plazo de justificación.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura de los formularios 3.a) y 3.b).

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Indicación, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) La beneficiaria debe aportar justificación documental que acredite como mínimo las ofertas de los tres diferentes proveedores realizadas cuando se superen las cuantías establecidas en la correspondiente normativa de contratación administrativa para el contrato menor (art. 29.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones), salvo que

bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen entitate nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada. Hornitzailearen aukera txosten batean justifikatu beharko da, proposamen ekonomiko onena aukeratu ez denean.

por las especiales características de este no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo presten o que el gasto se haya realizado con anterioridad a la solicitud. Deberá justificar en una memoria la elección del proveedor cuando la misma no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Fakturen eta ordainketei buruzko dokumentuen kopiak aurkeztea.

g) Aportación de copias de las facturas y de los documentos que soporten los pagos.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

<u>Laugarrena</u>.- Jarraipen Batzordea.

Jarraipena egiteko eta hitzarmen honen xedearen eta jasotako funtsen aplikazioaren betetze zuzena kontrolatzeko, alderdi biko jarraipen-batzorde bat eratuko da. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Euskara zuzendari nagusia —edo berak eskuordetzen duena— eta Euskara Zerbitzuko burua —edo berak eskuordetzen duena—, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean; eta MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen bi ordezkari, hark izendaturikoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 22. artikuluak jasotzen duena betez.

Jarraipen Batzordearen burua Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari bat izango da, eta idazkaria, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatearen ordezkari bat. Batzordea, nahitaez, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan zehar bilduko da, 15 eguneko aurrerapenarekin deituta, hitzarmen honen betetzearen azken emaitza ebaluatzeko. Beronen indarraldian beste bilera batzuk ere deitu ahal izango dira, hitzarmeneko bi alderdietako edozeinek hala eskatuta.

Jarraipen Batzordeari buruz hitzarmenak beren-beregi aurreikusi ez duenerako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II.

<u>Cuarta</u>.- Comisión de Seguimiento.

A los efectos de dar seguimiento, y controlar la correcta ejecución del objeto de este Convenio, así como de la aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de seguimiento bipartita compuesta por el Director General de Euskera o persona en quien delegue, y el Jefe del Servicio de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia o persona en quien delegue o persona en quien delegue, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia; y dos representantes de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO, nombrados por esta, dando cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La presidencia de la Comisión de Seguimiento la ostentará una persona representante de la Diputación Foral de Bizkaia y la secretaría una persona representante de la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO. La Comisión se reunirá, convocada con una antelación de 15 días, obligatoriamente durante el primer trimestre del año siguiente en aras a evaluar el resultado final de la ejecución del presente Convenio, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia de este, a instancias de cualquiera de las dos partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la

kapituluko 3. atalak arautzen duen kide anitzeko organoen araubide juridikoa aplikatuko da.

Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

<u>Bosgarrena</u>.- Aldi baterako indarraldia.

Hitzarmena berau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, beronen ondorioak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko badira ere. Hitzarmenaren indarraldia urte horretako abenduaren 31n amaituko da. Hori ez da eragozpen izango, baina, foru- dirulaguntzaren justifikazioa eta finantza-kontrola indarraldia amaitu ondoren ere egin ahal izateko.

<u>Quinta</u>.- Vigencia temporal.

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán desde el 1 de enero de 2022, extendiendo su vigencia hasta el 31 de diciembre de este mismo año, sin perjuicio de sus efectos respecto de la justificación de la subvención foral y de control financiero de la misma.

<u>Seigarrena.</u>- Onuradunaren betebeharrak.

MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateak nahitaez bete beharko du Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan eta harekin bat datozen gainerakoetan ezarritakoa.

Halaber, dirulaguntza publiko bat jasotzeak berekin dakar entitate onuradunak 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete behar izatea.

Horrez gainera, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateak konpromisoa hartu du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako lankidetza zabaltzeko. Pankarta, kartel eta beste edozein hedabidetan proiektu horren foru-babesa gehituko du, horietan Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa eta «euskararen txantxangorria»ren irudia sartuz.

Dirulaguntza honen erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du, halaber, euskara erabiltzeko diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan.

Hain zuzen ere, jendaurreko ekintza guztietan Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren Saila aipatu beharko da, beren-beregi, babesle legez, hasieran zein amaieran.

<u>Sexta.</u>- Obligaciones de la beneficiaria.

La MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO quedará obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 y demás concordantes de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Asimismo, la MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el patrocinio foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia y la imagen del «euskararen txantxangorria».

La entidad beneficiaria de la presente subvención se compromete así mismo a utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

De forma particular, en todos los eventos públicos habrá de hacerse, tanto al principio como al final de cada uno de ellos, una mención expresa al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, como patrocinador.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Entitateak bere gain hartzen du proiektua garatzen ari den bitartean sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan inolako hizkera sexistarik ez erabiltzeko konpromisoa (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsonei buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 3. artikuluak.

Entitate onuradunak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko betebeharra bere gain hartzen du, lanpostuen sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

Era berean, entitateak emakumeen eta gizonen tratamendua zainduko du, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzeko idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

Aurrekoaz gain, entitate onuradunak laguntza eman behar du, eta foru-administrazioko organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza-kontroleko eginkizunak eratxikita dituzten organoek eskatzen dizkioten agiri guztiak eman beharko ditu, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 41. artikuluak xedatzen duena betez.

La entidad se compromete igualmente a asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

La entidad beneficiaria se obliga a promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

Asimismo, la entidad velará porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y por el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

La entidad beneficiaria estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, ello conforme a lo dispuesto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

5/2005 Foru Arauko 27. artikuluak xedatu legez, entitate onuradunak azpikontratatzeko ezarritako baldintza eta debekuen erregimena bete beharko du. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren % 90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

Dirulaguntza honen onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana.

A los efectos del artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria queda sometida al régimen de requisitos y prohibiciones previstos en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

Igualmente, la beneficiaria de esta subvención queda obligada a comunicar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

<u>Zazpigarrena.</u>- Itzulketa.

Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko artikuluan edo Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

- Emandako dirulaguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.

- Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko Euskara Zerbitzuak eskaera egin ondoren.

- Dirulaguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.

- Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.

<u>Séptima</u>.- Reintegro.

Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en el artículo anterior o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, entre otras:

- Incumplimiento de la obligación de justificación.

- No cumplir la finalidad para la que la subvención fue concedida.

- La justificación insuficiente o deficiente en los términos establecidos en el presente Convenio conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Euskera del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

- Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

- La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.

- Hitzarmen honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa bere xede izan den jardueraren kostua baino handiagoa bada, hori ere itzultzeko arrazoia izango da.

Zortzigarrena.- Itzulketa foru-dirulaguntzaren onuradunak eskatuta.

Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (dekretu horrek 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du), pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake hark ez eskatu arren. Hala gertatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza itzuli arteko berandutze-interesen zenbatekoa kalkulatuko du aurrean aipatutako 76. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 5/2005 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Onuradunak berak eskatuta foru-dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Euskara Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia eginda.

Dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean edo telebanka-sistemaren bidez egin dezake ordainketa. Ordaindu eta gero, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio dirulaguntzaren kudeaketaz arduratzen den Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuari.

Bederatzigarrena.- Zehapen-araubidea.

Baldin eta onuradunak Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko

- Incumplir los demás supuestos previstos en el presente Convenio.

El exceso de financiación en relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

Octava.- Devolución a instancia de la persona beneficiaria de subvención foral.

De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la persona o entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

La devolución de las subvenciones forales a instancia de la propia persona beneficiaria de la misma se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Euskera. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Una vez practicado el abono por la persona beneficiaria de la subvención o subvenciones bien en una entidad financiera, bien a través del sistema de telebanca, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso al Servicio de Euskera del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Novena.- Régimen sancionador.

La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del

orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluko I. kapituluan jasota dauden egite edo ez-egiteren bat egiten badu, onuradunari zehapen-espedientea ireki ahal izango zaio, foru-arau horretako 61. artikuluan ezarritakoaren arabera; zehapen-espediente hori arau hauetan xedatutakoaren arabera izapidetuko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 1998ko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

Arau-hausteak diruzehapenak ezarriz zigortuko dira. Zehapen horiek honako hauek izan ahal izango dira:

a) Isun finkoa, 75 eta 6.000 euro bitartekoa,

b) Isun proportzionala: behar ez bezala lortu edo aplikatu, edo justifikatu gabe utzi den kopuruaren bestekoa izango da gutxienez, eta kopuru hori hiru halako gehienez.

Era berean, honako zehapen hauek ezartzeko erabakia hartu ahal izango da:

a) Bost urtez, gehienez, foru-sektore publikoko dirulaguntza publikoak eta abalak jaso ahal izateko aukera galtzea.

b) Bost urtez, gehienez, entitate laguntzaile gisa aritzeko aukera galtzea.

c) Bost urtez, gehienez, foru-sektore publikoko entitateekin kontratuak egiteko debekua.

Zehapena ezarri ala ez, bidegabe lortutako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak.

<u>Hamargarrena</u>.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako, honako arau hauek aplikatuko dira:

título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, podrá dar lugar a la apertura de un procedimiento sancionador a tenor de lo dispuesto en el artículo 61 de la citada Norma Foral que se tramitará conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias, que podrán consistir:

a) En multa fija, comprendida entre 75 y 6.000 euros.

b) Multa proporcional, que podrá ir del tanto al triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

Asimismo, se podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

a) Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas y avales del sector público foral.

b) Pérdida durante el plazo de hasta cinco años de la posibilidad de actuar como entidad colaboradora.

c) Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con cualquier entidad del sector público foral.

La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

<u>Décima</u>.- Régimen jurídico.

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente convenio serán aplicables la Norma Foral

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen Dirulaguntzen Erregelamendua, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, baita bere izaeragatik aplikagarri gerta suerta daitekeen beste edozein xedapen arauemaile ere.

Era berean, toki-administrazio den aldetik aplikagarri zaizkion publikotasun aktiboko arauak bete beharko ditu erakundeak.

<u>Hamaikagarrena</u>. – Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar den araubidea manu hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO aurrerantzean) eta 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena (DBEDBLO aurrerantzean).

Egin behar den datu pertsonalen tratamenduaren deskripzio orokorra:

Hitzarmen hau dela bide, alderdi biek behean adierazten diren rolak eta erantzukizunak bereganatzen dituzte, eta DBEOn eta DBEDBLOn ezarritako eta aplikatu beharreko estipulazioak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

a) MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitatea beherago adierazitako partiden konturako dirulaguntzak kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da. Hona partida: 43299 aurrekontuko partida, 335106 programa, 0406 organikoa, 2021/0053 proiektua.

5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Asimismo, la entidad queda sujeta al cumplimiento de las normas de publicidad activa que le sean de aplicación en su condición de administración local.

<u>Undécima</u>. – Tratamiento de datos personales.

El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, RGPD), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, LOPDGDD).

Descripción general del tratamiento de datos personales a efectuar:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

a) La MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO tendrá la consideración de Responsable del Tratamiento de los datos personales que sea necesario tratar para la gestión de la subvención derivada de las partidas presupuestarias 43299, programa 335106, orgánico 0406, proyecto 2021/0053.

b) Euskara Zuzendaritza Nagusia (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirolaren Saila), berriz, MANCOMUNIDAD DE LA MERINDAD DE DURANGO entitateko arduradunekin/ordezkariekin harremanetan jartzeko datuen tratamenduaren arduraduna izango da; tratamendu hori beharrezkoa izango da, bai hitzarmen hau idazteko, bai datuon derrigorrezko zaintzarako. Euskara Zuzendaritza Nagusiak DBEDBLOko 19.3 artikuluak ematen dion legezkotasunean oinarrituta egingo du tratamendu hori.

